

...eta
Kitto!

2016-IV-15

969 zkia.

Gaztegan

lanera abian



KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

ZERBITZUA

KUDEAKETA

ADMINISTRAZIOA

30 urtetik gorako esperientzia

943 200 358

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE



JENDEA HARTZEKO
(aurrez-aurre eta telefonoz)
09:00-14:00 / 15:30-19:30



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Dokorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Dokorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren
osasunaz arduratzen garelako**

Gutaz fidatu eta jarraiiezaguzu

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **t** Eta **twitter**ren: @Clinicalrazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



IRAZABAL
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:

Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:

erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:

elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Jose Luis Gorostegi, Silbia
Hernandez, Uxue Igarza
eta Haizea Arizaga.

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:

Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez.

DISEINUA ETA

MAKETAZIOA: J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:

Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.050 ale.

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.

ISSN: 1132 - 1679

(“...eta kitto!”k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

Eskutitzak

“Argia”ko kazetariari babesa eta “Mozal Legearen” gaitzespena

Argiako kazetari Axier Lopezi babesa emateko eta Mozal Legea gaitzesteko adierazpen instituzionala:

Zioa: Joan den apirilaren 6an Axier Lopez Argia aldizkariako kazetariak isuna jaso zuen Espainiako Gobernutik, Herritarren Segurtasun Legea aplikatuta eta bere lana egiteagatik.

Adierazpen instituzionala:

1) Eibarko Udalak Mozal Legea bezela ezagutzen den Herritarren Segurtasun Legea ozenki gaitzesten du, adierazpen eta informazio askatasuna

bezelako eskubide zibilak murriztu eta kriminalizatzen dituelako. Gainera, Eibarko Udalak lege hori berehala indargabetzea eskatzen du.

2) Eibarko Udalak bere babesa eta elkartasuna adierazten dio zigortutako kazetariari eta Argia aldizkariari, baita Mozal Legeagatik kaltetuak izan daitezkeen komunikabide eta eragile sozial guztiei ere. Halaber, bere aplikazioa salatzeke eta indargabetzea eskatzeko garatzen diren dinamikak babesten ditu.

Eibarko Udaleko Bozeramaileen Batzordea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LAGUNDU.- Laguntza eman, *‘ayudar’*. “Gurasuak asko lagundu etsen eta hareri esker amaittu eban karrera”.

Ondoan izan, *‘acompañar’*. “Elixara juaten lagunduko deuat, baiña ni kanpua geratuko nok”.

LAGUN HAUNDI/MIN/ZAHAH.- Oso adiskidea. “Hamen da Patxi, nere lagun zaharra, falta zana gaurko jardunetarako!”.

astean esanak

“Hondartzen ikuspegi ludikoa XX. mendeko kontzeptua da. Izan ere, itsasoa ez zen aisiarako gunea, eta ezta hondartzak ere. Hondartzak jende askoren lantegia ziren, batez ere emakumeena. Haiek ez zuten imajinatu ere egingo hondartza beste ezertarako gune izan zitekeenik. Hondartzetan prestatzen zuten itsasontzietan ekarritako arraina, eta bertan konpontzen zuten arrantzarako tresneria ere. Hondartza negozio gune garrantzitsua zen, eta itsasontziak ere hondartzan egiten zituzten”

(J. ANTONIO AZPIAZU, HISTORIALARIA)

“Mundu arabiarrean oinetakoa sinbolo degradatzaile eta iraingarria da. Zikina da kultura arabiarrean arabera: lurra zapaltzen duelako eta, horrez gain, gorputzaren atalik baxuen eta zitalena babesten duelako. Horregatik daude derrigortuta euren oinetakoak kanpoan lagatzera meskita batean sartu aurretik. Hortik zihoan kazetari irakiarraren haserrea bi oinetakoak bota zizkionean George W. Bush presidenteari. Horrek ekarri du ere Egipton iraintzat hartzea Messik, asmo onenarekin izan bazen ere, bota pare bat eskaintzea enkantea egiteko. Gure gobernuak oker bera egiten dute arabiar munduko arazoekin”

(JOHN CARLIN, KAZETARIA)

“Itzuliko erlojupekoaren ibilbideari kritika asko egin dizkioite egunotan, antolatzaileak puntari punta atera nahian ibiltzen direlako beti. Ba nik zoriondu egin nahiko nitzuke! Asmatu egin dute ikusgarritasuna lortzen eta zaleengana iristen, Itzuliaren berezko sena hori gehitu diotelako. Itzulira datorrenak badaki zerekin topo egingo duen, harbideetako klasikoetara doanak han zer aurkituko duen badakien neurri berean. Eguraldia lagun izan ez arren, aste osoan ez da izan segurtasun arazorik, ikusleentzat zoragarria izan da lasterketa eta azken arte emozioa mantendu du”

(PELLO BILBAO, TXIRRINDULARIA)



ENRIKE SOSOLA

“Maestro, maestro, txorixa he visto...”

Zenbatetan entzun ote zuen **casero!!** baserriko ume horrek garai bateko eskola nazionalan. Bullyng latza XX. mendeko ume gizajo masail gorri harentzat. Azkenerako zelan ba ez lotsatu bere jatorriaz. Euskera gorrotatzeraino eta sarri bere semealaberi ama-hizkuntza ukatzeraino. Zorionez egoera aldatu egin da. Baserriko umea ederto integratuta dago eskolan. Ez du beldurrik bere gurasoen ofizioaz jarduteko. Harrotasunez, bere ezagutzak partekatzen ditu ikaskideekin, irakaslearen lagungarri. Asko dakielako abereetaz, suaz, uraz, basoaz, ... Baina baserria gurasoentzat ere eskola izan daiteke ikasteko gogoia eta piska bat adi egonez gero: Euskeraz bizitzea gozamina dela frogatzen duen arnasmunea da baserria. Lurra bere mugak dituela muturren aurrean jartzen digun baliabide aparta, hazkunde mugagabea ezinezkoa dela kontxo! Zelan ahaztu auzolanaren ikasgaia eta horrekin lotuta baserriaren errealtatetik jaso daitekeen lezio larriagoa: elkarlana ahaztu eta erabakiak presaka, adostasunik gabe hartzen badira, akabo baserria (*Amama* pelikula gogoan?).

P.D. Guraso kezkatu honen deia Eibarko Hezkuntza komunitateari: jartzen dizkiguten zatiketa-amarruetan jausi barik, beldurrik uxatu, autokritika egin, danok elkartu eta adostasuna bilatu eskola publiko berria lortzeko. Gure umeek eskertuko digute gehien. Aldi berean, hezkuntzako “arduradun” eta aginteriei exigentzia: **Zeuei dagozkizuen** lanak ganoraz egin itzazue behingoz. Ez da onargarria XXI. mendeko ume gizajo masail beltz etorri berriak erabiltzea ezkutuko helburu politiko (hegemonia iraunkortu) eta ekonomikoak (murrizketaz defizit-muga bete) lortzeko. Ez gara Untzagako baldosen koloreaz ari. Hezkuntzaz dihardugu, Eibarren etorkizunaz.

Deparkelen pintxo-potia zapatuan

Astelehenian Parkinson gaitza gogoratu zan mundu maillan eta, horren aitzakixarekin, **aurren be Deparkel Debarrena Parkinson Elkartearen aldeko** pintxo-pote berezixa egingo da bixar Untzagan (jubilauen aldian). Txikiteuan ibiltzeko orduetan, eguardixan (11:30etatik 15:00etara) eta arratsaldian (19:00etatik 22:00etara) zabalduko daben txosnan pintxuak eta edarixak eskinduko dittue. Antolatzailliak aurreratu deskuenez, sasoiko produktuak erabillita bospasei pintxo ezberdin preparatzeko asmua dake eta trago bako-

txarekin pintxo bana emongo detse jendiari, musutruk. Edarixak euro bi (urteko ardaia, freskagarria, mostua edo ura) edo hiru (garagardia) balixoko dabe. Horrekin batera Parkinson gaitxotasunaren zein Deparkel alkartiaren informaziñua eskintzeko mahaixa be ipiñiko dabe. Batzen daben dirua alkartiak gaitxueri zein famelixeri emoten detsazen zerbitzuak pagatzen laguntzeko erabilliko dabe.



euro jasotzen zittuan 2015eko aurrekontuak komunitate-igogailuen gastuetarako; horretatik 21.433 euro erabili ziran: 12.150 euro Amañan; 6.132 euro Mekolan; eta 3.150 euro Barakaldon. Hori ikusitta EAJ-k igogailiak publikatzea proposatu dau.

Gin Tonic Lehiaketia gaurtik aurrera

Gaurtik hasitta eta domekara arte I. Gin Tonic Lehiaketako lehen fasia jokatu da ize-na emonda daken 20 tabernen artian: Akara, Amesti, Ametsa, Arkupe, Beleko, Birjiñape, Cepa, Foxter, Guridi, Kontent, Koskor, Kultu, Lau Bide, Ongi Etorri, O'Jays, Slow, Sutondo, Txoko, Xok eta Zubi Gain. Lehen fase horretan herritarron parte-hartzia ezinbestekua izango da, gin tonic-ak probatu eta botua emon bihar dabelako. Horretarako, lehiaketan jardungo daben tabernetan botua emoteko orriax egongo dira eskuragarri. Lehiaketia ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatu dau, ostalarixen artian

euskeriaren erabilleria sustatzeko asmua dakan "Euskeraz Primeran!" egitasmuaren barruan eta, antolatzailliak azaldu dabenez, "jendiak gitxienez 3 gin tonic probatu dittuala ziurtatzeko, orriax horretarako daguzen hiru laukixetan taberna bakoxtaren zigillua jarri biharko dabe eta gero, gehixen gustau jakuenari botua emon". Orriax bihar dan moduan beteta tabernetan egongo diran bozketa-kutxetan sartu biharko dira, apirilak 18xa baiño lehen. Botua emoten daben guztien artian asteburu bateko egonaldixa zozketatuko dabe.

Finala apirilaren 22xan

Jendiak emondako botuetatik urtengo dira hiru finalistak. Finala, barriz, apirilaren 22xan, barixakuan, egingo da Untzaga plazan, arratsaldeko 20:30etatik aurrera. Oihan Vegak gidatu eta girotuko daben ekitaldixan, finalistak gin tonic-ak epaimahaixaren aurrian preparau biharko dittue. Irabazliak 300 euroko sarixa irabaziko dau, eta bigarren eta hirugarren sailkatuak, barriz, koktelak egitteko kit bana jasoko dabe.





Pleno aretua txiki geratu zan esperantistaren liburuaren aurkezpenian. Silbia

Santiago Arizmendiarrietari eskindutako liburu eta bideua

Martitzenian aurkeztu eben udaletxian Ego Ibarra batzordiarren azken argitalpena: Santiago Arizmendiarrietari esperantista eibartarraren "Mis Memorias. La guerra civil española: 20 meses prisionero" liburua. Jendetza batu eban ekitaldixan, gaiñera, Badihardugu alkartiarekin alkarlanian sortu daben "Oroimenaren geruzak" ikus-entzunezkuaren proiektuaren bideo horretan Santiago Arizmendiarrietaren bitzita zein sasoi hartako girua islatzeko testigantza eta irudixak bildu ditue. Izena Javier Rodrigoren hitzauzuetatik hartu daben 15 minutuko bideuan,

bestiak beste, Arizmendiarrietak Klub Deportibuan izan zittuan esperantoko ikaslietako bat izan zan Arrate Ibartutxiren lekukotasuna jasotzen dau, Toribio Etxebarriarekin izandako gutun-truke hartan esperantozko testuak itzultzen ibillitako Aitor Aranarena... baita Antxon Narbaiza idazliaren eta Ane Izarra dokumentalistaren berbak be. Liburuaren paperezko ediziñua liburu-dendetan salgai dago, baiña horrez gain, liburuaren ediziño digitala eskuratzeko zein ikus-entzunezkuaren ikus-entzunezkuaren bideoa dago interneten, Ego Ibarra batzordiarren webgunian (www.egoibarra.eus).

Bigarren Errepublikia goguan

Bigarren Errepublika aldarrikatu zala 85 urte bete ziran atzo eta, hori gogoratzeko, ekitaldi berezixak antolatu ditue alderdi eta talde ezberdiñak: atzo goizian Eibarko Sozialistak izan ziran lehenak. Arratsaldian, barriz, EH Bildu eta "Ahaztuak 1936-1977" alkartiaren txanda izan zan. Eta domekan, Gazte Komunistak eskutik Ermutik abiatuko dan martxa Untzagan amaitu eta gero, 12:00xetan Ezker Anitzaren ekitaldixa hasiko da, Cayo Lara koordinatzaile nagusixaren parte-hartziarekin.



Urtero moduan, Gazte Komunistak antolatutako martxa Ermutik abiatu eta Untzagan amaituko da.

autuan

HERENTZIA

Untzagako jubilau etxiak bazkidiendako hitzaldixa antolatu dau gaurko, herentzia eta testamenduen inguruko informaziñua jaso nahi dabenak horretarako aukeria euki deixen: Arantza Intxausti Gipuzkoako Jubilau Alkarteko abokatuak egingo dau berba eta aurreko batian egin zan saian baiño modu sakonaguan landuko dittu gaixak. Hitzaldixa 19:00etan hasiko da eta aurretik 10 bazkideri konsulta partikularra duan egitteko aukeria emongo detse (buleguan izena emon biharko dabe).

EH BILDU AUZUETAN

EH Bilduk auzuetara bisitak egitteko egitasmuarekin aurrera segiduko dau eta, bide horretan, hurrengo bisita San Kristobal, Sostotarren eta Ubixara izango da, datorren asteko eguenian, 18:00etan. Betiko moduan, bizilagunen batek bisita alkarrekin egittia nahi izanez gero, hónek dira kontaktuan ipintzeko email eta telefonua: bildu@eibar.eus / ilamarain@eibar.eus / gerrasti@eibar.eus / 943708428.

MANIFESTAZIÑUA

Domekan Bilbon "Amnistiaren norabidean" goiburuari jarraituta presuen alde egingo dan manifestaziñora juateko autobusa antolatu dabe. Goizeko 10:30xetan urtengo da, Ego Gaiñetik.



JOSE MARTIJA URREIZTI

(2016-IV-5)

**"Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik,
EZ ZAITUGU INOIZ AHAZTUKO"**

ZURE SENIDEAK




kale izena pertsoneiaren izana



F. Esnaola
FERNANDO
ESNAOLA

Kanposantoaren beheko aldean, Bista Eder kaletik berehala aurkitzen da **EULOGIO GARATE** izeneko kalea. Eulogio Garate (1889ko irailaren 13an jaioa) eibartar jatorra izan zen, industria-gizon bikaina. Bere ekintzarik handiena armagintzan beharrez ziharduen G.A.C. bizikleta fabrika bihurtzea izan zen (eibartarrentzat "Kurriuanekua", Arragueta kalearen hasieran, Arikixaneko zubiaren ertzean zegoena). Ikusirik fabrikazio berri horrek etorkizuna zeukala, Orbeak, B.H.-k eta gero beste fabrika batzuk Eulogio Garaten biderei jarraitu zioten. Horrek aberastasun handia ekarri zuen eibartarrentzat. Eulogio Garate Errepublikako denboran kontzejala izan zen, eta 1937. urtetik aurrera erbesteratua bizi behar izan zuen, Frantzia lehengo eta Argentinan ondoren. Han "Kometa" eskopeta fabrika sortu zuen Luis Ormaetxearekin batera. 1953. urtean lortu zuen Eibarrera bueltatzea, eta bere bizitzako azken hamabi urteak hemen igaro zituen.



Dibujo Eskolarekin elkarlanean



Ziklomotorren azterketa teknika

Datorren maiatzaren 4an Eibarren ziklomotorren azterketa teknika egiteko aukeria egongo da, 09:00etatik 14:00etara zezen plazan. Ziklomotorren ITA pasatzia nahi dabenak aurretik izena emon beharko dabe, zuzenian udaltzainguren buleguan edo 943708424 telefonuan. Horrekin batera, inspeziño egunian presentau biharreko agirixak hókera dira: zirkulaziño baimena, ezaugarri teknikuen ziurtagirixa, aseguru eta titularraren NANA. Gaiñera 26'89 euro pagau biharro dira.

Ikusmenari buruzko hitzaldixa

Apirilleko hitzaldixan Biomekanika Unidateko adituak oinkatzea eta bizikletan daroiagun posiziñoa zuzentzeko laserra zelan erabilli leikian azaltzen jardun eben Portalean eta Poliklinika Gipuzkoak eskinduko daben Osasun Ikasgele hurrengo saian, barriz, Mercedes Zabaleta oftalmologuak jardun-

go dau berbetan, maiatzaren 11n. "Ikusmena bizitza da" izenburuari jarraituta, Excimer Laserrari esker miopia, hipermetropia eta astigmatismua zuzentzeko betaurreko eta lentillak zelan ahaztu leikiazen azalduko detsa jendiari. Ondoko argazkixan apirillaren 6xan hitzaldixa eskindu eban hirukotia.



Armerixako Ikasle Ohien urteko batzarra



Armerixa Eskolako Ikasle Ohien alkartiak urteko batzarra egingo dau bixar, 10:00etatik aurrera. Batzarra amaituta, 12:15ak aldeira taldiak erretratua etarako dau eskolako eskillaretan eta 13:15etatik aurrera Jesús Manuel Gómez Pérezek hitzaldixa emongo dau "Valores y actitudes para tu desarrollo personal y mejora empresarial: Valores para trabajar. Valores para vivir" izenburuari jarraituta (hitzaldixa nahi daben guztiendako zabalik egingo dabe). Eguna biribiltzeko, izena emon dabenekin bazkarixa antolatu dabe Unzaga Plaza hotelian.

Lau hitzaldi AlternatEibarren eskutik

Bere burua "eredu barri eta alternatibua sustatzeko espazio" modura aurkezten daben AlternatEibar-ek antolatuta, gai ezberdiñak ikutuko dituen jardunaldixak egingo dira apirillian. Guztira lau hitzaldi izango dira eta danetan "antolake-ta eta kudeaketa eredu alternatibua" azalduko ditue: "Badagoz alternatiba praktikoa eta errealak eta Eibarren be martxan ipiñi leikiazela erakutsiko daben eta martxan jarri nahi dittuan ekimena da AlternatEibar".

Lehen hitzaldixan, martitzenian, energia eta ekonomia alternatibua azalduko ditue (Guztion Onerako Ekonomia eta Zaldudondoko udalaren praktikak); eguaztenian, barriz, aisialdi alternatibua jardungo

dabe (Donostiako Piratak, Bilboko Kaskagorri konparsa, "Familiarekin mendian" esperientzia); apirillak 26xan "Elikadura burujabetza" izenburukuan Urduñako toki elikadura sistemak, Ekolapiko ekimena eta Larrabetzuko guraso alkartaren esperientzia azalduko ditue; eta hurrengo egunian (27xan) "Ekonomia sozial eraldatzailea" izenburukuan "Batura: Ekonomia sozial eraldatzailearen Euskal Herriko Mapa" eta Beterri Garapen Agentzia esplikaiko ditue. Hitzaldi guztiak Portalean izango dira, 19:00etan. In-



Eguazteneko hitzaldixan aisialdi alternatibua azalduko dabe

formaziño gehixago nahi dabenak alternatEibar@gmail.com helbidera idatzi leike edo Facebook-en AlternatEibar-en orrixan begiratu.

DYA-ren Lehen Sorospen ikastarua

Gipuzkoako DYA-k Lehen Sorospen ikastaro teoriko-praktikua antolatu dau, oiñarrizko ezaguerak ikasi nahi dittuenendako. Kur-sua egitten dabenak eguneroko larrialdieri zelan erantzun ikasiko dabe: bihotz-biriken suspertzia, zaurixak, hausturak, erredurak... Apirillaren 25etik maiatzaren 6ra bittartian izango dira klasiak, 16:00etatik 19:00etara Eibarko DYA-ko ordezkaritzan (Pagaegi, 5). Irakasliak DYA Gipuzkoako Irakaskuntza Eskolako mediku, erizain eta monitoriak izango dira eta matrikuliak 110 euro balixo dau. Informaziño gehixagorako www.dyagipuzkoa.com helbidian begiratu leike.



"Eibar Errepublikatik haratago" hitzaldixa

Datorren martitzenerako hitzaldixa antolatu dau ...eta kitto! Euskara Elkarteak: "Eibar Errepublikatik haratago" izenburuari jarraituta, Errepublikaren zergaittaxak eta euki zittuan ondorixuak azalduko ditue gaixan adituak diran Josu Ibartutxik eta Jesus Gutierrezek. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da saiaua, ...eta kitto!-ren egoitzan (Urkizu, 11 solairuar-tean) eta sarrera libria izango da.



Suhiltzaillien martxa Eibarren

Suhiltzaillien zerbitzuak okerrera egittia ekarriko daben lege-proiektua bertan behera lagatzia eskatzeko martxia eguaztenian Eibarrera ailegatu zan: eguardixan Zarautzetik abiatu ziran suhiltzailliak, euretako batzuk bizikleta gaiñian, eta arratsaldeko 17:00ak jota Untzagan euren aldarrikapenaren barri jendiari emoten hasi ziran. Bixen bittartian puzgarriak eta bestelako jokuak egon ziran eta umiak edarto pasau eben suhiltzaillien kaskuak jantzitta argazkixak egitten eta mangerarekin jolasten. Bizkaia eta Gipuzkoa ziharkatu dituen martxak gaur amaituko dira, Gasteizen.



Guztion Onerako Ekonomia defendatzen duen taldea Portalean elkartzen da hilean behin, eta Eibarko herritarren eta talde eragileen parte-hartzea bilatzen du. Nazioarte mailakoa den eredu ekonomiko honek Euskal Herrian gero eta presentzia handiagoa du. Guztion Onerako Ekonomiak kompetentziaren aurrean elkarlana indartzea bilatzen du. **Javier Goikoetxea** eibartarra BIKO Consulting aholkulari kooperatibako kidea eta,aldi berean, pixkanaka Eibarren ezagutzera ematen ari den inizatiba honen sustatzaileetako bat da. Guztion Onerako Ekonomiaren nondik norakoak ezagutzeko berarekin egon gara.



JAVIER GOIKOETXEA (Guztion Onerako Ekonomiaren sustatzailea):

"Bizi duguna ez da krisi ekonomikoa, balioen krisia baizik"

- BIKO Consulting-en baino lehen multinazional bateko salmenta buruzagitzan jardun zenuen. Zerk eragin zuen aldaketa hori?

Ia egun batetik bestera aldatzen duen edozein pertsonari gertatzen zaion bezala, arrazoi traumatikoengatik egin nuen aldaketa. Zerbait psikologikoa izan zen. Multinazionalan, egia esan, denbora gutxi egon nintzen, urtebete inguru. Aurretik urte batzuk langabezian pasa nituen. Sasoi horretan oso egoera konplikatu eta kritikoa bizi izan nuen eta, ondorioz, murgilduta gauden sistemarekiko gogoeta eta espiritu kritikoa sortu zen nire baitan. Gauzak beste modu batean ikusten hasi nintzen. Orduan heldu zitzaidan multinazional horretan salmenta-buru bezala jarduteko aukera. Nire bizitzan aldaketa bat egiteko beharra argiago ikusi nuen urte horretan: lortuezinak ziren salmenta emaitzak ez lortzeagatik kalera bota behar izaten nituen nire taldeko kideak, eta horrek gaixotu egiten ninduen. Ivan nire lagunaren deiaren ondoren gogoeta- eta bilaketa-prozesu sendo baten sartu ginen, gizartea horren gaizki egotearen arazoak bilatzen hasi ginen. Lotsatuta nengoen, ikusten nuelako sistemak nire ADNan sartuak zituela nik inola ere onartzen ez nituen balioak. Horregatik pentsatzen dut bizi duguna ez dela krisi ekonomikoa, balioen krisia baizik. Gogoeta guztien ondorio bezala sortu genuen BIKO Consulting.

- Guztion Onerako Ekonomia gaur egun daukagun eredu baina hobea dela esaten duzue. Zergatik da horrela?

Guztion Onerako Ekonomiak kapitalismoa eta komunismoaren arteko dikotomia gainditzen du. Ekonomia "berrien" artean dago. Agian ez da hobereena izango, baina bai holistikoena: jadadij dauden ekonomiak batzeaz gain, tresnak gehitzen ditu. Gaur egun daukagun ereduarentzat garrantzitsuena da, modu gordinean konpetituz, gehienezko etekina lortzea; eta Guztion Onerako ereduari, berriz, guztien onura diruari gailentzen zaio, hau da, irabazi ekonomikoak hor egon behar du, baina bitartekoa edo baliabidea izan behar du, eta ez helburua. Gainera elkarlana bultzatzen du. Guztion Onerako Ekonomiak hiru ardatzen (ekonomia, gizartea eta ingurugiroa) arteko jasangarritasuna bilatzen du, giza duintasuna, justizia soziala, jasangarritasun ekologikoa, elkartasuna, gardentasuna eta parte-hartze demokratikoa bezalako balioak erabilia.

"Orain da herritarren ordua eta hau euren aukera da. Iraganean Eibar bere burua eraikitzeko gai izan zen bezala, ziur gaude orain ere eibartarrak euren proiektua lantzeko gai izango direla"

- Eibarrendako ideiak badauzkazue...

Proiektua herritarrek beraiek sortzea nahi dugu, gu laguntzaileak izango gara. Eibartarrek zer nahi duten entzun egingo dugu. Euren esan beharko digute zeintzuk diren dauzkaten kezak eta zeintzuk diren hobetu nahi dituzten gauzak. Herritarren parte-hartzea handiagoa den heinean emaitzak hobekiago izango dira. Horretarako Eibarko Hiriarren Guztion Onerako Behategia sortuko dugu, baina hori baino lehen ahalik eta erantzun gehien lortu behar dugu. Horretarako hasierako inkesta sortu dugu parte hartu nahi duten guztientzat:

Lan-taldean parte hartu nahi duten guztiek ateak zabalik dauzkate. Hilero Portalean elkartzen gara. Bileren egutegia gure webgunean dago: www.ebceuskadi.org. Horretaz gain apirilaren 19an ere Eibarren egongo gara Alternatibak-ek antolatutako hitzaldi bat ematen.

- Zelako etorkizuna antzematen diozu gure herriari?

Oso baikorra naiz, Eibarko elkarte eta talde politikoen inizatiba hau begi onez ikusi baitute. Gainera, Euskadin lanean daramatzagun hiru urteetan, Udalaren eta talde politikoen aldetik beti erraztasunak izan ditugu Eibarren bilerak eta jarduerak egiteko. Orain da herritarren ordua eta hau euren aukera da. Iraganean Eibar bere burua eraikitzeko gai izan zen bezala, ziur gaude orain ere eibartarrak euren proiektua lantzeko gai izango direla.

Eguaztenean aurkeztu zuten udaletxean Pertsona Nagusien XXIII. Hamabostaldia. Aurten 'Eibar pertsona nagusien lagunkoia' goiburuari jarraituko dion hamabostaldia gaur abiatuko da eta Biztu Jubilatu eta Pentsiodunen Koordinakundeak, herriko jubilatuen-etxeek eta udalak elkarlanean antolatu duten egitaraua apirilaren 29ra arte garatuko diren jarduerak osatzen dute.



Hamabostaldia aurkezteko prentsurrekoa eman zuten eguazten goizean.

Asteburuko azoka, NAGUSIEN HAMABOSTALDIKO berritasun nagusia

Gaur eguerdian, Portalean izango da Hamabostaldiaren inaugurazio ekitaldi ofiziala, Miguel de los Toyos alkatearekin, Ainara Tomasena Matia Institutoko teknikariarekin, Idoia Sarasketa Gizartekintza zinegotziarekin eta Jose Ramon Gomez Biztu Jubilatu eta Pentsionisten Koordinakundearen Presidentarekin.

Aurtengo Hamabostaldiak izango duen berritasun nagusia asteburuan Untzagan egingo den Pertsona Nagusiendako Produktu eta Zerbitzuen Azoka izango da. Udalaren Garapen ekonomikoa, Enplegua eta Berrikuntza sailak antolatu du azoka, "persona nagusiei zuzendutako produktuak eta zerbitzuak dituzten Eibarko dendak eta negozioek euren eskaintzaren berri eman dezaten". Horretarako, karpa bat jarriko da Untzagan eta zapatuan egun osoan (10:30etik 20:00etara) eta domekan goizez (10:30etik 14:30era) zabalduko dute. Aurkezpenean azaldu zuten, asteburu honetan egingo dena udalak antolatutako gremioen bosgarren azoka izango da: "Helburua Eibarko merkataritzaren sektore ezberdinak kalera ateratzea da, jendearentzat ikusgarri egin eta, horrela, produktu eta zerbitzu horien salmentari laguntzeko".

Hamabi enpresak eman dute izena azokan parte hartzeko: Eroski Bidaia (bidaia-

San Telmo Museora bisita, Mugerzaren omenezko ibilaldia, kantuak, hitzaldiak, txapelketak, txokolate-jana eta herri-bazkaria ere badira prestatutako egitarauan

agentzia), Masajes Isasi (jarreraren berreziketa), Beitu (zentru optiko eta auditiboa), Plancha Larruga (litate-zentroa), Akorde (aholkularitza, coaching-a), Elortza Botika (farmazia), Halcon (bidaia-agentzia), Zentral Optika (optika eta audioprotesiak), Itxesi Belardenda (dietetika eta elikadura), Buruz Burmuin-Gimnasioa (Errehabilitazio kognitiboa), Vitaldent (odontologia zerbitzuak), Athlete (fisioterapia) eta Gaes (zentru auditiboa). Azokaren harira, bestalde, **domekan** 12:00etan "Coaching eta ilusioa" tailerra eskainiko du Akordeko Idurre Albizuk udaletxean. Eta **bihar eguerdian**, 12:30ean, Kanean Kantuz abesbatzak emanaldia eskainiko du azoka girotzeko.

120 lagun Legarreko frontoian

Hamabostaldiaren harira antolatutako egitarauari erreposoa eman zioten ekitaldian eta, esan zuten, **apirilaren 19rako** Donostiara, San Telmo Museora bisitan jo-

ateko txangoak arrakasta handia izan du: "Hiru autobus bete ditugu eta jende gehiago hartzeko aukera izanez gero laugarrena ere beteko genuke ia seguru, baina ezinezkoa da, nahikoa larri ibili dira-eta izenemandako guztiakin bisitak antolatzeko".

Apirilaren 21ean (eguenan) Juan Luis Mugerzaren oroimenezko ibilaldia egingo da. Untzagatik 11:00etan abiatuko dira, Amañatik eta Ipuruatik "suabe-suabe" ibiltzeko eta, amaitzeko, piskolabisa egingo dute Ipuruako jubilatuetxean.

Idoia Sarasketa zinegotzi eta medikuak, bestalde, jubilatuek eskatuta "Botikak ondo hartzea: noiz eta nola?" izenburuko hitzaldia eskainiko du, saio bitan (**hilaren 25ean**, 19:00etan, Untzagako jubilatuetxean eta **apirilaren 28an**, 19:00etan, Beheko Tokian).


Horrez gain, **apirilaren 26an** toka eta igel-toka txapelketetako finalak jokatu dituzte Ipuruako jubilatuetxean (11:00etan) eta arratsaldeko 17:00etan, berriz, mahai-jokoen txapelketa. Egun berberetan txokolate-jana eta kantuak izango dira San Andres Egoitzan, 16:00etan. Eta egitaraua agurtzeko, urteroko moduan herri-bazkaria (paella) eta dantzaldia egingo dira Legarreko frontoian, **apirilaren 29an**. Egun horretarako 120 lagunentzat tokia egoten da eta urtero aulki guztiak betetzen dituzte.

moda



arkitektura

laura albistegi



Txapela buruan eta ibili munduan

Sherlock Holmes, Charlie Chaplin, Indiana Jones, Robin Hood, Jack Sparrow, Harry Potter. Zine munduko pertsonaiak denak. Garai desberdinekoak, egoera zeharo desberdinetan kokatuak, baina bakoitza jantzi espezifiko bati lotua eta osogari komuna: txapela. Zinean marka irudi bezala oso erabilia izan da, baina bizitza errealean beste hainbat erabilerari lotua dagoela esan genezake. Funtzionala batzuetan, hotza zein beroa ekiditeko edota segurtasuna zein higieua bermatzeko. Identifi-

kazio gisa beste batzutan, klase soziala edo kulturala agerian lagatzeko ala zenbait erlijiori eta tradizioi leialtasuna erakustearren alegia.

Euskal Herrian esaterako, elementu garrantzitsua izan da oso. Beltza eta borobila, txortena duena, horra gure txapel klasikoa. Mundu osoan izan ziren ezagun euskal herritarrak txapela buruan zutela, euren nortasunari sekula ere uko egin gabe. "Txapela buruan eta ibili buruan" dio esaerak, baina tradizioa tradizio izan ohi da askotan, eta gero eta gutxiago ikusten dira halakoak kalean.



Estetikak tradizioa baztertu duela dirudi

Orain urte batzuetako lotsa apur hori baztertu, eta txapelei gure bizitzako atea zabaltzen hasiak gara. Mutil gazteen artean biserak ugari, euskal txapel modernizatua sortu badute ere, eta

nesken artean berriz, mota zeharo desberdinetakoak. Handiak, txikiak, kopadunak zein hegaldunak, kolore anitzekoak... norberaren fisionomiaren arabera hautatuak eskuarki.

Baxuentzat kopa altua eta hegal txikia, altuentzat berriz txapel haundiak. Aurpegi borobileei forma geometrikoak, karratuei bolobilduak eta aurpegi luzekinei kopa txikikoak. Nortasuna ematen dute txapelek. Dena den, hile nahasia edo soilgunea estaltzeko bada ere... ongiatorriak txapelak!

nagore fernandez



Behin, ezagutzen ez ninduen eibartar batekin herritik kanpo topo egin, eta ni ere eibartarra nintzela egiaztatu nahian, galdera argitzaille bat botatzidana: **Non dago Bilbo Zar?**


Azkar asko eta ziurtasunez erantzun nuen, bere poztasunerako. Umetan ikastolan Eibarko kaleei eta historiari buruz ikasitako datu haiek gustoko nituen, oso; zirrargarria zen txoko eta sekretu haiez jabetzea. Eta egia esateko, oraindik ere gauza bera sentitzen dut gertuko tokien antzinako irudiak

Non dago Bilbo Zar?

ikusi edota bitxikeri berriak ezagutzearan. Duela gutxi orduak pasa nituen argazki zaharren artean igerian. Gure proiektu bati lotutako gauza konkretu baten bila hasi nintzen eta baita topatu ere, baina bitartean lagunekin banatzeko bilduma polita eginda; hamaika oroitzapen berpizteaz gain, zenbat aurkikuntza berri! Argi daukat gai hauek ez zaizkigula guztioi berdin gustatzen, baina ziur nago eibartar askok tarte goxoa pasako luketela sarean debalde eta guztiz eskuragarri dauden lanei begirada bat eman ez... Aldaketa handi asko egon baitira gure herrian, baina txiki ia ohartezinak are gehiago, eta horrek hirigintzaren bilakaera itzela eragin du urteetan zehar, sarritan konturatu ere ez garen arren! Horregatik, guzti horren testigantza aztertu, gorde eta hedatzen dutenei nire esker ona. Eta zertaz ari naizen ez da-

kitenei, pixkat kuxkuxeatzeko gonbidapena: Ordenagailuko pantailaren denboraren makinaren bitartez, batetik, eta gaur egungo kale eta eraikinen artean paseatuz, bestetik.

Izan ere, Kalbetoiko kalezulo desagertu hura aitzaki hartuta idatzi dut gaurkoan, baina eibartar petoa sentitzen den edonori egiteko moduko beste galdera mordoxka bat dago gure paisaia aldakorrean ezkatuturik...



EUSKARAREN TRANSMISIOA

mintegia

Maiatzak 3, asteartea



IZEN EMATEA zabalik

www.etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus 943 20 09 18

egitaraua

- 08:45 - 09:00:** Akreditazioa eta dokumentazioa
- 09:00 - 09:15:** Ongi-etorria
- 09:20 - 10:05:** "Gazteek ez dakite euskara hizkuntza gutxitua dela"
Xabi Aizpurua Ugarte, UEMA
- 10:10- 10:55:** "Etorकिन integrazioa eta bertakoen egokitzapena"
Jon Maia, bertsolaria
- 11:00 - 11:45:** "Euskera, tresna eta aukera merkataritzan"
Estitxu Garai, EHU
- 11:45 - 12:05:** **ATSEDENALDIA**
- 12:05 - 12:25:** "Egian euskaraz bizi nahi dugulako"
Aitziber Gurutzeaga, BAGERA
- 12:30 - 12:50:** "Eskola eta familiak elkarlanean euskara ikasteko"
Elizabeth Lema, Eibarko Arrateko Andra Mari ikastetxea
- 12:55 - 13:15:** "Eusle programa ikastetxearen esparruan aplikatua"
Juani Iriondo, Eibarko San Andres ikastetxea
- 13:20 - 13:40:** "Gurasoei zuzendutako motibazio ekimena: bizia delako!"
Deñe Zabalo, Elgoibar Ikastolako Guraso Elkarte
- 13:45 - 14:40:** "**MAHAINGURUA**": Xabi Aizpurua, Estitxu Garai,
Aitziber Gurutzeaga, Jon Maia
Dinamizatzailea: **Jaime Altuna**
- 14:40 - 14:45:** AGURRA
- 14:45:** BAZKARIA

Antolatzailea: _____

Babeslea: _____

Laguntzaileak: _____



Euskara Elkarte



Gipuzkoako Foru Aldundia

Miren San Martin eta Amaia Dominguez (La Salleko ikasleak):

"Gutxi eginda **bizitza bat salba** dezakezu"

Miren San Martin eta Amaia Dominguez La Salleko ikasleak dira, eta beste ikaskide batzuekin batera, Eibarren odol, hezur-muin eta organo-emaile gehiago lortzeko proiektua jarri dute martxan. La Salle ikastetxean urtero "Zein" izena duen proiektu bat egiten dute, DBHko lehenengo mailatik laugarrenera arte. Proiektua arazo bat aukeratu eta arazo horri konponbidea aurkitzen saiatzean datza. Guzti honetaz Miren eta Amaiarekin hitz egiteko aukera izan dugu.



- Zergatik erabaki zenuten odol, hezur-muin eta organo-donazioei buruzko proiektua egitea?

Hasieran *brainstorminga* egin genuen, hau da, ideia zaparrada, eta hortik atera zen gai bat tekno-etika izan zen. Biologia ikasten dugunez hau bera aukeratu genuen, eta Eibarren donazioen kontua arazoa dela iruditu zitzaigunez, proiektua horren bueltan egitea erabaki genuen.

- Zer egin duzue orain arte?

Gaixo dagoen mutil batekin jarri ginen harremanetan, hezur-muina behar du eta bizitzeko beharko du etorkizunean. Laguntzeko prest dauden beste hainbat pertsonekin ere jarri ginen kontaktuan, eta denekin kanpaina bat martxan jartzeko lanean gaude, La Sallen emaile gehiago lortzeko.

- Zergatik da garrantzitsua donatzea?

Gaur egun gaixo asko daude eta arazoa da ez dagoela emaile nahikorik. Donatzean pertsona hauei bizitzeko beste aukera bat ematen zaie, askotan duten aukera bakarra. Iruditzen zaigu jendea ez dagoela horrekin kontzientziatuta.

- Zein izan daiteke emaile?

Organoak 18 urtetik gora edozei-


nek eman ditzake, hil ondoren organoak osasuntsu badaude. Odola 18tik gora ere bai, baina Gurutze Gorriak badu jasota gaixotasun batzuk izan dituztenek ezin dutela donatu; ezta 50 kilo baino gutxiago pisatzen dutenek ere. Eta muina, 18 urtetik gora berriz ere, baina 55 urtetik beherakoak izan behar dira. Medikuek zenbat froga egin, eta kitto.

- Zer esango zenieke odola emateko zalantzak dituztenei, eman dezaten?

Ezagutu ditugu emaileak izan direnak, eta esan digute ez duela minik ematen eta ez duela inongo arriskurik. Donatuak izan diren pertsonak ere ezagutu ditugu, eta batzuetan donazio hauek dira duten azken aukera, eta beraz, oso garrantzitsua da emaileak lortzea. Gutxi eginda bizitza bat salbatu dezakezu.

- Zerbait gehiago egiteko asmorik baduzue?

Maiatzaren 28an Cadena SER irratian elkarrizketa egingo digute, horrela jendeak gure proiektuaren berri izan dezan. Esan bezala kanpaina bat osatzen saiatzen ari gara, eta Udalaren baimenaren zain gaude. Iturri gorri elkartearekin ere lanean dihardugu.



ALEJANDRO LARREATEGI GORROTXATEGI

"Ez agurrik, ez adiorik, gero arte baizik.
GURE BIHOTZETAN BETI
MAITE IZANGO ZAITUGU"



Plazatik Gaztetxera bertso-txapelketa hasiko da

Gaur, apirilak 15, Plazatik Gaztetxera bertso-txapelketari emango zaio hasiera Eibarren. Aurreko edizioetan egindakoaren bidetik, hamabosgarren edizio honetan ere hiru fasetan banatutako zazpi saio izango dira. Guztira 16 bikotek, hau da, 32 bertsolarik hartuko dute parte.

Proiektuaren helburua Euskal Herriko bertsolari gazteei kantatzeko aukera ematea da eta, era berean, bertsoa gazteen-gana gerturatzea, horretarako tresna gisa gaztetxeak erabiliz. Txapelketa aurrera atera ahal izateko asanbladetakok kide diren zazpi gazte elkarlanean ibili dira.

Bestalde, aurtengo saioek epaitzeko sisteman berrikuntzak izan dituzte; bertso bakoitzari epaile talde batek puntuazio jakin bat eman ordez,



publikotik aukeratutako 5etik 7 pertsona arterako talde batek gehien transmititu duen bikotea aukeratu du, matematikak alde batera utziz. Horretaz gain, ariketa berriak ere gehitu dira, saioari bizitasuna eta umorea eman eta formaltasuna kentzeko asmoz. Horrela, giro erosoagoa sortzea es-

pero da, bertsolari zein entzulearentzat.

Txapelketak, esan bezala, hiru fase izango ditu. Lehen fasean lau kanporaketa jokatu dira, eta kanporaketa bakoitzean lau bikotek hartuko dute parte. Saio bakoitzetik bi bikote pasatuko dira finalerdietara.

Bigarren fasean bi finalerdi

gaur Eibarko Gaztelekuan

izango dira, eta horietako bakoitzean lau bertso-bikote izango dira. Hemen ere saio bakoitzetik bi bikote sailkatuko dira.

Maiatzaren 21ean Mutrikun ospatuko den finalean egun guztiko egitaraua egongo da.

Emanaldi bakoitzean afaltzeko aukera ere izango da.

Gaur Eibarko gaztetxean 22:30etik aurrera emango den saioan lau bikotek jardungo dute: Manex Astigarraga eta Maddi Sarasua; Ane Zuazubiskar eta Maria Izaga; Aissa Intxausti eta Malen Amenabar; eta Aitor Salegi eta Antton Aizpurua. Afaria, ostera, 20:30ean izango da, eta tiketak 7 eurotan eros daitezke Depor eta Belko tabernetan.



Gazte Txef lehiaketa eta perkusio afrikarra INDIANOKUAN

Hilabete honetarako jarduera bi antolatuko dituzte Indianokua Gaztelekuak. Alde batetik **Gazte Txef III. Txapelketa** burutuko da 3 asteburutan zehar. 3-4 pertsonako taldeak osatu beharko dituzte parte hartu nahi duten gazteek. Froga barixakuan edo zapatuan burutuko den, parte-hartzaileen erabakia izango da. Froga bakoitza desberdina izango da eta sukaldean duten trebetasuna erakutsi beharko dute. Apirila-

ren 17an amaitzen da izena emateko epea. Beraz, animatu!

Bestalde, hilaren 30ean, **Perkusio Afrikarra** ikasteko aukera egongo da. Ordu t'erdiko tailerra izango da eta doakoa. Indianokuan bertan egingo da 18:00etan. Dauden plazak baino izen-emate gehiago egonez gero, zozketa egingo da. Parte hartu nahi dutenak, apirilaren 17a baino lehen, Gaztelekutik pasatu beharko dira. Gerturatu!!!



JUAN ANTONIO BELATEGI TXURRUKA

(2016-IV-3)

ESKERRIK ASKO BIHOTZEZ
ZUEN EPEL ETA LAGUNTASUNA EMAN DIGUZUENOI
Familiaren partez



Ez gara bizi gaztiak biharra erraz topatzeko sasoirik egokixenian. Egixa esateko, biharra topatziana gatxa izaten da edozein edade eukitta be, baiña gaztieri behintzat bidia errazteko ahalegiñak egitten dittue han eta hamen, eta oin momentuan horretan dihardue Debegesan. Denpora gitxittan, ixa batera gaztieri biharrian hastia erraztera bideratutako programa bi abiatu dittue: batetik hillaren 29ra arte izen-erotia zabalik dakan Debabarreneko Enplegu Anezka izenekua dago. Eta, bestetik, hille honetan bertan ekin detse Hazilan izeneko egitasmuari. Bigarren honetan parte hartzen diharduen gaztiak martxa betian topau genduazten eguazten goizian eta eurak kontau deskue zuzenian zertan dabiltzan.

LANERA abian, hegan hasteko prest

Hazilan proiektuaren baitan eratutako taldea ikasketak dittuen eta lan munduan esperientzia daken 25-35 urte bittarteko gaztiak osatzen dabe. Taldekidien artian denetarik ikasi dabe: biologia, injeniaritza, komunikaziñua, pedagogixia, Arte Ederrak... Beste ezer kontatzen hasi baiño lehen, taldiari izena emoten detsan proiektu kolektibua abiarazi dabela azaldu deskue: Gaztegan. Horren barri emoteko, gaztiak eurak komunikaziñuaz arduratzeko sortu daben lantaldia, Ane Urkiola, Ekhi Belar eta Ane Garcandiak osatzen daben hirukotia emon desku: "Beste ezertan hasi baiño lehen, geure buruak ezagutzera emoten juañ giñan: zeintzuk giñan, zelako esperientzi-

xak euki dittugun... kontatzen ibilli giñan. Taldia aktibatzeo klasiak oso dinamikuak izan ziran, geure buruak zelau saldu eta horrelako kontuak lantzekuak. Egixa esateko, lehelengotik eskema guztiak apurtu jakuzen, danak pentsatzen genduan gure formaziñorako klasiak jasoko genduazela, baiña segiduan konturau giñan hau beste zozer zala, oin arte probautakuekin zerikusirik ez dakala".

Gaztegan sare sozialetan

Martxuaren erdialdian ekin zetsan bidari Gaztegan-ek eta hillebete eskasian taldea erabat aktibautu daguala begibistakua da: Facebooken perfilla sortu dabe, interneten bloga prestatu dabe eta Twitterren be kontua dake:



@gaztegan. Euren aurkezpenian jasotzen daben moduan, "Gaztegan" proiektuko kidiak gara, *erronka profesionalen billa gabil-tzan talentudun gaztiak. Hazilan programaren bittartez gure helburua lortzeko hainbat konpetentzia pertsonal eta profesional landuko dittugu, eta baita proiektu autogestionatu bat sortu be, hamen aurkezten detsuegun Gaztegan proiektua, hain zuzen be".*

Lehelengoz martxan ipiñi daben Hazilan programiarekin bat egitteko interesa haundia izan da lehelengotik, 100 lagunetik

gora izena emon eban eta. Hórrretxekin berba egin eta gero, programako arduradunak aukeraketia egin bihar izan eben eta hortik urten da biharrian dabillen Gaztegan taldea. Taldekidiak euren artian ezberdintasunak eukitta be, danak alkartzen dittuan ezaugarria zein dan be esan deskue: "Biharra topatzera zoziazien formaziñuak, esperientziak eta horrelakuak inportantiak dira, baiña hórrrek baiño inportantiagua da bakotxaren jarrerria, hori lehelengotik erakutsi deskue eta ondo ulertu dogu, gaiñera: norberak dakan kuriosi-

667 54 89 16 (Ritxar)

kolorlan@hotmail.com



ITZULPEN

**ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarara,
gaztelaratik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.**

ZERBITZUA

elkartea@etakitto.com

dadia, gauzak ikasteko predisposiziñua, proaktibidadia... Gaiñera, jarrerria ez da ikasi leikian zeozer".

ka juatiak baiño indar haundixua dakala taldian juatiak eta guk behintzat horretarako asmua daukagu, geure artian horretarako projektua landuko dogu".

Taldiaren garrantzixa

Ondo ikasi daben beste zeozer taldiaren garrantzixa da: "Bat gehi bat ez da bi. Pentsatzen dogu biharra topatzerako orduan bana-

Oso pozik dagoz eskindu detsen aukeriarekin: "Karreran emoten ez detsuezen gauzak jasotzen dihardugu, oso gauza erabilgarriak. Gaiñera etxetik



Oin dala hillebete hasi ziran formaziñua jasotzen eta maiatzian enpresetan praktikak egitiari ekingo detse. **Silbia**

Debabarreneko Enplegu Anezka

Debabarreneko 25 gazte langabetuk lan mundura sartzeko euren aukerak hobetuko dittue Debabarreneko Enplegu Anezka izeneko ekimen barrixari esker. Ekimena langabezixa egoeran duguaz gaztleri zuzenduta dago. Gizonezkuak bada, 18 eta 29 urte bittartekuak onartuko dittue eta emakumien kasuan, barriz, onartuko dittuenen adiña 18 eta 34 urte bittartekua izango da. Parte hartzeko ez dabe prestakuntza profil zihat bat eskatzen. Oñarrizko ikasketak dittuen gaztiak izan leikez, lanbide heziketatik edo batxillergotik datozenak, unibersitate ikasketak dittuenak... Ez da biharrezkua esperientzia profesionala izatia, ezta lan sektore jakin batian eskarmentua izatia be. Hautatzen dittuenak astian hainbat egunetan bilduko dira Debegesan. Teknikari baten laguntasunarekin, coaching eta adimen emozionaleko saiuk egingo dittue, komunikaziño dinamikak, marka personala eta enplegu billaketia 2.0, alkarrizketa personaletarako entrenamendua, enplegarritasun mapak, enpresetara bisitak, billerak ekin-tzailliekin, lan bitartekaritzako prozesuak giza baliabidietako arduradunekin... Izena emoteko epia luzatu egin dabe eta, beraz, proiektuan parte hartu nahi dabenak apirillaren 29ra arte eukiko dabe izena emoteko aukeria, 943 820 110 telefono zenbakira deittuta edo lanzadera@debegesa.eus helbidera idatzitta.

urtetzia eta beste batzuekin kontaktuan egotia oso inportantia da danerako: etxe-zuluan sartuta bakar-bakarrik egotiak ezertarako balixo ez dozula pentsarazteko arriskua dakar, baiña zeure egoeran duguaz beste batzuekin berba egitten hastian, ideiak konpartitzerakuan... balixo haundixa dakagula, gauza mordia egitteko ahalmena dakagula konturatzen hasten zara".

Maiatzian enpresetan praktikak egitten hastekuak dira, baiña horretan be eskua sartu eta parte-hartze zuzena eukiko dabela aurreratu deskue: "Geure artian berbetan jardun dogu eta, Debegesatik eskinduko deskuen laguntasuna eskertzen dogun arren, guk ekin bihar detsa-

gu praktiketarako enpresak billatziari eta geure burua eskintziari, ezin gara euren eskutik oratuta juatera mugatu".

Esperientziatik lortu daben motibaziñua begibistakua da eta, gaiñera, beste batzuekin konpartitzeko irrikitan dagoz. Horregaittik euren egoeran duguaz beste gazte batzuk euren kontaktuan ipintzera animau nahi dittue, sare sozialak erabilittia edo gaztegan@gmail.com helbidera idatzitta. Taldierendako logotipo edo irudixa be eurak sortu dabe: hegan hasterako prest dagan hegazkiña edo abioia. Eta hori eskuan hartuta zekela agurtu genduaz, "lanea abian" eruango dittuan abioian igotzeko prest.



Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>Bulegoa Bidebarrieta, 20</p>	
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	



Helbidea
URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreak / 1. solairua
☎ 943 12 02 00 **Fax: 943 12 02 04**

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

1) Kardiologia	11) Barne Medikuntza
2) Zirugia	12) Radiologia
3) Dermatologia	13) Urologia
4) Dietetika / Nutrizioa	14) Traumatologia
5) Análisi Klinikoak	15) Koloproktologia
6) Ortodontzia	16) Erizaintza
7) Otorrinolaringologia	17) Zoru pelbikoaren errehabilitazioa
8) Pediatria	18) Foto-depilazio Unitatea
9) Psikiatria	
10) Neurologia	

Erlojupekoak erabaki zuten Itzulia: Contador garaile

Aurreko zapatuan jokaturako erlojupeko bikainean, Alberto Contadorrek Euskal Herriko Itzulia eraman zuen laugarren aldiz. Etapako lehen hirurak igo ziren azken podiumera eta Sergio Henao eta Nairo Quintana kolonbiarrak izan zituen irabazleak aldamenean. Euren atzetik sailkatu ziren Thibaut Pinot, Joaquim Rodriguez eta Samuel Sanchez, bai etapan eta baita azken sailkapenean ere. Mendiko maillota Diego Rosa italiarrantzat izan zen, barixakuan Arraten amaitu zen etapa irabazi eta gero, Itzuliko ihesaldirik luzeenari amaiera ezinhobea emanez. Tarteko helmugaren saria Nicolas Edet-entzat izan zen eta Mikel Landak, etapa bat irabazteaz gain, euskal herritar onenaren saria bereganatu zuen. Oso itzuli ona egin zuen Caja Ruraleko Pello Bilbao ere. Lehen egunetik hasita euria izan dute ziklistek "lagun" eta taldeen estrategian horrek izan du bere eragina. Hala ere, zaletuek ondo gozatzeko aukera izan dute astelehenetik zapatura arte.



Diego Rosa
garaile Arraten.



Aldapa gogorrei
aurre eginez.



Eguraldi gaiztoak
ez zuen zaletuak
kikildu.



Kolonbiarrak Urkizuko irteeran.



Irteeratik helmugaren bila.



Bariantetik irtenda, Estaziñotik.



Alberto Contador helmugaratzen.



Henao, Contador eta Quintana.

Asier Cuevas garaile Seregnoko 50 kilometroetan

Asier Cuevas ultrafondista eibartarra garaile izan zen Italiako Seregnon jokaturako 50 kilometroko lasterketan, Espainia mailan inoiz egin den markarik onenarekin (02:57:35). Ehun kilometroetan munduko txapelkunordea den Cuevasek distantzia horretako Mundialerako prestatzen dihardu eta horren barruan kokatu du domekan irabazi zuen proban parte hartzea.



XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX. Silbia



Avia Eibar Rugby Taldeak Ohorezko B mailan jarraituko du

A Coruñan domekan jokatu zen ligako azken partiduan eibartarrek CRAT taldeari irabazi zioten 20-24 eta, horri esker, mailari eutsi eta beste urtebetez Ohorezko B mailan jokatu dute eibartarrek. Puntu bakarraren aldea atera diete Avia Eibar Rugby Taldeak El Salvador B eta VRAC Quesos Entrepinares taldeei eta azken jardunaldian, garaipen beharrak bultzatuta, hirurak izan ziren nagusi sailkapenean euren aurretik zeuden taldeen aurkako partiduetan.



Debabarrenaren garaipenak areto-foballean

Bigarren B mailako 2. multzoko Concepto Egilek 2-4 irabazi zuen Santurtzin (Ikerrek bi gol eta Trevik eta Jon Anderrek bana), Kimetzen partidu bikainari esker, batez ere atezain-jokalarari postuan. Domekan Murillo de Rio Leza hartuko dute IMH kiroldegian, 12:30ean.

Infantil mailako Gipuzkoako txapelketan, bestalde, Debabarrena 5-3 gai-

lendu zitzaion Arantzazuko Amari. Horrela, eibartarrek hirutik hiru irabazi dituzte eta sendo jarraitzen dute finalerdiak jokatzeko bidean. Hurrengo jardunaldian Erainen aurka jokatu beharrekoak fase honetako lehen postua zeinendako izango den argituko du. Ekain atezaina eta Pablo, Asier, Patxi, Alex eta Alfa Gipuzkoako selekzioaren azken deialdian sartuko dira.

Otxoa Memoriala Jon Barrenetxearentzat

Eibarko Txirrindulari Elkarteak antolatuta kadete mailakoek jokaturako LVI. Otxoa Memorialean Jon Barrenetxea (Gastronomia Baska Avia) izan zen helmugaratzen lehena, 01:13:27 denborarekin; 3 segundora heldu zen 45 laguneko tropela eta hor Ailetz Lasak (Quesos Albeniz) eta Beñat Felipek (Allerru) osatu zuten podiuma. Txirrindulari kopuru handiak hasi zuen proba, errepidea ondo betetzeko moduan, kolore askotako 225 txirrindularik osatutako "kolore askotako sugeak"; helmugaratzea, baina, 126k bakarrik lortu zuten.



Buruz-buruko Irribarria vs Arretxe II.a Astelenan

Domekan atea zabalduko ditu Katedralak 1. mailako txapelketako pilota norgehiagoka jasotzeko jaialdiko partidu nagusian. Irribarriak eta Arretxe II.ak jardungo dute, nor baino nor, txapelketan aurrera egiteko txartelaren bila. Aurretik Mendizabal III.ak eta Tolosak osatutako bikoteak Elordik eta Barriolak osatutakoari egingo dio aurre. Eta, amaitzeko, promozio txapelketarako buruz-burukoak izango da, Irusta eta Erostarbe aurreko domekan eszenategi berean garaile izan zirenen artekoa.



Espainiako Txapelketara

Ipuru gimnasia erritmikako kluba Xixonen egongo da hilaren 20tik 24ra indibidual mailako Espainiako Oinarrizko txapelketa eta taldekako Kopa jokatzen. Eibarko 10 gimnasta izango dira bertan. Aurretik, bihar Gipuzkoako Eskola Txapelketa jokatuko da, Ipuruako 25 ordezkarekin.



Julen Terán kadete onena Gernika-Lumoko duatloian

Euskadiko zirkuitu barruan jokatutako azken duatloian Delteco Eibar Triatloiko lau ordezkari izan ziren eta Julen Teran gaztea lehen kadetea izan zen helmugan (32.a sailkapen absolutuan). Eibarko beste hirurak honako postuetan sartu ziren: Enrique Guruzeta (61), Roberto Gartzia (70) eta Hector Gisasola (125). Azkoitian izango dute hurrengo proba.



Deporreko pilotariak gaur Astelenan

Udaberri Txapelketako hiru partidu jokatuko dira gaur 19:15etik aurrera Astelenan. Infantiletan Tajuelo-Azkargorta bikoteak Legazpiko ordezkariari egingo die aurre eta helduetan, lau térdiaren barruan, Narbaiza eta Zubizarreta eibartarrek Zendoia eta Lasa (biak azkoitiarrak) izango dituzte aurrean, hurrenez hurren.

Aitor Hernandezek hasi du BTT denboraldia

Gaur egungo BTT modalitateko Euskadiko txapelkunak hirugarren postuarekin debutatu zuen Izkueko Galtzagorri Trofeoan, cross countryko Euskadiko Openaren hirugarren proban. Iaz Euskadiko txapela jantzi zuen zirkuitu berean, Specialized-Ermua taldeko txirrindularia Diego Latasa irabazlearengandik minutu erdira helmugaratu zen.



Ibai Diez herriko onena Gernika-Lumoko duatloian

Asola Berriko ordezkariak hiru txirilo bota zituen Gipuzkoako 47. Hiru-Txirilo bolo txapelketako lehen jaurtaldian. Xabier Ortuzar elgetarra nagusitu zen San Pedroko bolatokian, bost txirlorekin, eta laukin jarraitu zioten San Migueleko Unai Loiolak eta Floregaako Gorka Etxanizek. Elgoibarko San Miguelek hartuko du bihar txapelketako bigarren jardunaldia, 17:00etan.

Kirolbet foball-zaletuaren liga asteburuan amaituko da

Durango liderrak Esmorga laugarrenaren aurka jokatuko du etzi 09:00etan eta jarraian (10:30ean) Bar Txoko bigarrenak Kontent bosgarrenari egingo die aurre ligako azken jardunaldian. Biak izan ziren garaile azkenaurreko jardunaldian eta, horrela, Durangok bi puntuko aldeari eusten dio domekakoari begira. Bestalde, beheko postuei begira, Slow Xok-ek aurrea hartu dio Ipur Sagardotegiari azken jardunaldian Fontaneria Mujikari 1-0 irabazi ondoren.

Eibarko infantilak hirugarrenak Getxon

Getxon jokatutako foball-9ko torneoan, eibartarrek (beste hainbat taldetako jokalariekin osatutako taldean) hirugarren postuan amaitu zuten. Lehen faseko hiru partiduak berdindu eta gero, Bizkeneskak taldea kanporatu zuten, baina finalerdian amore eman behar izan zuten gero txapela jantziko zuen Bilboko Athletic-en aurrean (0-2). Hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeke neurketan berdindu eta gero, eibartarrek penaltietan irabazi zioten Bizkerreri. June Hernandez atezain onena izendatu zuten.



Kalamuakoen lorpenak Angleteko torneoan

Jiu Jitsu eta Ne Waza modalitateetako Angleteko txapelketan izan dira Kalamuako ordezkariak beste zortzi klubekin batera (Bordele, Boucau Tarnos, Bearn, Baiona, Ciboure, Capbreton, Soumonloin eta Anglet), eta Nekane Muguruzak urrezkoa lortu zuen borrokan, Javier Lassak zilarezkoa Ne Wazan eta Garikoitz Del Barriok bronzetza bi modalitateetan.

Judoan, bestalde, Hernaniko kiroldegian jokatutako kadete mailako Euskadiko txapelketan, Iker Martinezek bronzetza domina eskuratu zuen. Bi aste geratzen dira bakarrik Andorrako torneo ospetsurako eta han izango da Kalamua 18 judokekin.

Eibar-Real bihar 20:30

Hiru puntu ateratzen dizkio Realak Eibarri denboraldia amaitzeko sei jardunaldiren faltan. Bestela ere, gertutasunarengatik, lehiakidetasun handiko partidua denak interes berezia hartuko du bihar arratsaldean Ipuruan: Eibarrek irabaziz gero, hiriburuko taldea harrapatuko luke sailkapenean. Eibarrek 1. Mailara igo zuenetik hiru partidu jokatu dira euren artean, bi Anoetan eta bakarra Ipuruan, eta hiruretan etxekoak irabazi du. Iaz, gainera, Javi Lararen golak eman zion orduan Garitanok zuzentzen zuen taldeari lehen garaipena maila horretan debutatzen zuen egunean.

Mendilabarren taldeak iaz, sei partiduren faltan, Garitanonak zi-

tuenak baino zazpi puntu gehiago ditu orain. Liga amaieran ere izan ziren taldeak 35 punturekin mailari eutsi ziotenak (Eibarrek horiek lortu zituen, baina gol-averagean galdu zuen Granadarekin eta Deporrek).

Ekitaldiak biharko

Horrelako norgehiagokak mezezi duela-eta, hainbat ekitaldi antolatu dira biharko eguna girotzeko, ostalarien kolektiboak eta Kirolbet-ek, Eibar Merkatalgune Irekiak eta Udalak antolatuta.

Erdiguneko ostalariak antolatu, gaztelu puzgarriak ipiniko dituzte 12:00etan Anbulatorioko parkean, Untzaga plazan, Ego Gainen eta Plaza Barrian. 15.00ak arte egongo dira martxan eta,



Eibarrek 1. Mailan lortutako lehen gola Realari sartu zion iaz.


gero, 16:00etatik 19:00etara. Bestalde, 12:30ean Kirolbet txarangak Urkizutik irtengo du kaleak girotzeko eta Untzagaraino joango da. Hor, Jubilatu Etxearen aldean, ordubeteko iraupena izango duen koadrilen arteko kirol-jardunari ekingo diote 13:00-

etan. Aurrekoarekin batera, 12:30ean kale-antzerki ikuskizuna eskainiko dute eta, handik ordu erdira, 13:00etan, peñen batuketa egingo dute, Ego Gain ingurutik Orkestra elektrotxarangak lagunduta herritik kalejiran ibiltzeko.



Eibarko harribitxia

Mikel Oiarzabal eibartarra da gaur egun proiektzio gehien duen Realeko jokalaria. 18 urterekin bikain debutatu du 1. Mailan orain bost denboraldi Eibarko Ohorezko infantil mailan jokatzen zuen aurrelariak. Baina, askok ez badute uste ere, ez da gure harrobitik sortu eta talde handietan jokatzen duen izen bakarra.



Markel Susaeta (Athletic)



Josu Hernaez (Mirandes)



Nestor Susaeta (Oviedo)



Iñigo Ruiz de Galarreta (Leganes)



Aitor Seguin (Bilbao Ath.)



Jon Errasti (Spezia)



ION MARTINEZ 'TXIKI'
(aktorea eta umorista)

- Hiru antzezlan idatzi eta interpretatu ostean bakarrizketa batekin zatoz. Nolatan aldaketa hau?

Lehenengo bakarrizketak egiten hasi nintzen eta gero antzerki munduan sartu nintzen. Bakarrizketak aspaldiagotik daramatzat egiten, baina 2010. urtetik antzerki lanak egiten ditut.

- Londres eta Sydneyn egona zara "Ispilua" antzezlana eta bakarrizketarekin. Nola amaitu zenuen horrelako tokietan antzeztzen?

Sydneykoa nire auzoko bat han lanean dagoelako irten zen. Euskal txokoan ibiltzen da eta esan nionean hara joango nintzela proposatu nion bakarrizketa

"Euskarazko bakarrizketak gutxitan entzuten dira"

Ion Martinez 'Txiki' umoristak "Mil a Zien: Baietz barrez lehertu!" bakarrizketa eskainiko du apirilaren 20an, eguaztena, ...eta kitto!k Urkizun dituen lokaletan. *Aldatzen Laguntzen* antzerki taldea sortu zuen Martinezek 2010. urtean "Oteiza \neq Gizartea" Oteizari eginiko emanaldiarekin batera. 2011tik 2013ra arte Saioa Royorekin "Ispilua" eta "Amets Zirkoa Salgai!" antzezlaneanekin Euskal Herri osotik ibili zen. Datorren astean berarekin ondo pasatzeko aukera izango dugu Eibarren bertan.

eskaintzea bertan, euskal etxean. Dozena bat lagun elkartu ginen eta oso giro ederra egon zen. Eta Londresekoa Pirritx eta Porrotx-en bitartez atera zen. Lagunak ditut, bertako Euskal Etxeko euskal festan antzeztu behar zuten eta gonbidatu egin gintuzten. Baina ez da normalena; gaztetxeetan antzeztzen dut batez ere.

- Zein da zure prozesu artistikoa? Non aurkitzen duzu obrak idazteko inspirazioa?

Nahiko famatua den aktore batek behin esan zidan bakarrizketak idazteko kalean gertatzen diren gauzei arreta jartzea ezinbestekoa dela; egoera

asko ikusten dituzu kalean, edo lagun batek kontatzen dizkizu, eta horiei, gero, umorea sartzen diet. Hortik abiatzen dut nire prozesua, eta pixkanaka idazten jarraitzen dut. Askotan egunero gauzetan eta kalean ikusten ditudan gauza piletan oinarritzen ditut bakarrizketak.

- Zer eskainiko diozu ikusleari bakarrizketan?

Bakarrizketaren mamia jendeak barre egitea izaten da, eta nik hori lortu nahi dut; gainera euskarazko bakarrizketak zoritxarrez gutxitan entzuten dira. Nire helburua giro ona sortzea eta jendeak barre egitea da.



"Spaceko Zarama".

Dantza ikuskizun bi Coliseoan

Coliseo antzokiak bi dantza emanaldi, "Spaceko Zarama" eta "Aureo" hartuko ditu zapatu bitan jarraian. Bihar ikusteko aukera izango den ikuskizuna, "Spaceko Zarama", Krego Martin Danza taldearen antzezlana da. Dantza, jokoa eta umorea biltzen ditu, eta jolastuz birziklatzen irakatsi nahi du, irudimena piztuz edertasuna etorkizunean bilatzen jarraitzeko. Emanaldia 17:00etan izango da eta sarrerak 5 eurotan egongo dira salgai.

"Aureo", bestalde, Dantzaz Kanpainia taldearen sorkuntza da. Ekitaldia ez da soilik taula gainean garatuko; antzokiaren hall-ean hasi eta amaituko da, hain zuzen, ikuslea esperientzia osoan zehar laguntzeko. Bost pieza koreografiko laburrez osatuta egongo da, estilo ezberdinak nahastuz, baina beti ere ikusle ororentzat atsegina eta erraza izanez. Emanaldia apirilaren 23an izango da, 20:30ean, eta sarrerak 8 eurotan egongo dira salgai (aldez aurretik, interneten, kutxabank.es helbidean edo, bestela, leihatilan ohiko ordutegian).

Euskal Jaia Ermuan

Txindurri taldeak antolatuta, domekan Euskal Jaia hartuko du Ermuak, 12:30etik aurrera. Goizean auzorik auzo ibiliko dira kalejiran eta arratsaldean dantza-erakustaldia egingo dute Orbe kardenalaren plazan. Dantzarien ikuskizunaz gain, bestelako ekitaldiak ere antolatuko dira euskal musika eta dantzen inguruan.





“El Florido Pensil Neskak” eguenean

Andres Sopeña Monsalve idazlearen "El Florido Pensil"-en euskarazko adaptazioa eskainiko du Tanttaka antzerki taldeak datorren asteko eguenean Coliseoan. Remake honetan antzezle guztiak emakumezkoak dira (Loli Astoreka, Gurutze Beitia, Teresa Calo, Elena Irureta eta Itziar Lazkano) eta lanak gerra ondoko Espainiako hezkuntza-sistemaren kurdeltasun absurdu eta zentzugabea jasaten duten bost neskatoren egunerokoa kontatzen du. Lanaren arduradunek diotenez, "Frankismoak Erdi Aroko patriarkaturik sakonena berreskuratu zuen eta emakumeak ekin-tza moralizailleen helburu bilakatu zituen. Horren ondorioa izan zen bi emakume mota baino ez izatea: zintzoak zirenak eta besteak. Eszena guztietan ikusiko da, batzuetan argi, besteetan itzulinguru korapilatsuen bidez, sistema mota honek sortutako sailkapen zorrotz hau". Antzezlanana 20:30ean hasiko da eta sarrerak 10 euro balio ditu.

Arantza Alvarezen margo erakusketa



Arantza Alvarez aurrez Topalekun egindako beste erakusketa batean.

Atzo arratsaldean zabaldu zuten Arantza Alvarez Laskurainen margo-erakusketa Untzagako jubilatutxean. Apirilaren 30era arte egongo da artista eibartarraren margolanak ikusteko aukera, astelehen, martitzen, eguen eta barixakuetan 19:15-etik 21:30era eta zapatu eta domekutan, berriz, 12:00etatik 14:00etara.



Topalekuan ketuekin jolasean

Eguaztenean, arratsaldeko 19:30ean, "Ketuekin jolasean" ikuskizun-dastaketa egingo du Oskar Trebiño sukaldariak Topalekuan. Ekitaldian parte hartzeko aurretik izena eman behar da, Arrate Kultur Elkartearen bulegoan edo 943 202 299 telefonoan (astelehen eta martitzenean 10:30etik 12:30era) edo, bestela, arratekultu@gmail.com helbidera idatzita.



Liburu magikoak

Datorren barixakuan, 17:30ean, umeen liburutegian "Ez da magia, errealitate areagotua da" tailerra emango dute 5-8 urte bitarteko haurrentzat. Tailerrean parte hartzen duten umeek errealitate areagotura gerturatzeko marrazkiak egingo dituzte eta marrazki horiek 3D-n ikusteko aukera izango dute.

Sanchez Vallejoren lan berria

Seme-alaben heziketaren inguruko lana eman du argitara Juan Sanchez Vallejo psikiatrak gaur arratsaldean Madrilen aurkeztuko duten "El cielo en tus manos" antologian. Liburuan hainbat egile ezagunen idatziak batu dituzte Jose Cabrera sendagilearen hitzurrearekin.



San Juan jaietarako lehiaketak

Udalak urtero antolatzen duen "Sanjuanak Eibarren" kartel-lehiaketara lanak aurkezteko epea maiatzaren 6ra arte egongo da zabalik eta egun hori izango da alkohol larregi edatearen kontrako pegatina lehiaketarako lanak aurkezteko azkena ere. Informazio gehiagorako eta lanak aurkezteko Pegorara jo daiteke.



EVA PEREZ DE ALBENIZ

Galtzerdiei buelta eman

Lagun batek kontatu dit ikastaro bat egiten ari dela "emakumearen lidergotza unibertsitatearen esparruan" sustatzea helburutzat duena. Ikastaro horretan ikasi duten lehenengo gauza zera da: talde baten buru izateko, aurretik norbere buruaren liderra izan behar dela. Bide horretan honako ariketa hau proposatu zieten: idatzi paper batean zuk daukazun zortzi gaitasun. Eta nire lagunak ekin zion lanari: nigan konfiantza handia dut, kementsua naiz, beti laguntzeko prest, zorrotza, entzuten dakidana, langilea, antolatzaile bikaina eta disziplinatua. Buff! kostata, baina zortzira heldu zen. Eta orduan irakasleak: "Orain beste zortzi behar ditut". Ea ba, hasi pentsatzen eta... konprometitua, jendearen aurrean hitz egiteko ez daukat arazorik, sukaldari ona... eta hortik aurrera ezin aurkitu gaitasunik, are gehiago, bere burura ahulezien zerrenda agertzen hasi zen eta, hor bai, zortzi baino gehiago etorri zitzaizkion ti-ta batean. Orduan, eskua altxatu eta irakasleari adierazi zion gertatutakoa eta harek: "Ea ba, aukeratu ahulezia bat eta emaiozu buelta". Emaiozu buelta, galtzerdiekin egiten dugun bezala, eskua barruraino sartu eta zast! Buelta eman. "Oso erraz hunkitzen naiz". Ah! Orduan besteen sentimenduak ulertzeko gai zara, enpatia handikoa. Eta beste batek: "Ni oso hotza naiz". "Horrek egoera latzak kudeatzeko errezetasuna emango dizu". "Ba ni oso urduria naiz". "Aprobetxatu urduritasunak ematen dizun indarra gauzak aurrera ateratzeko"... Gaur gauean, galtzerdiak kentzen dituzuenean, eskua barruraino sartu eta buelta eman!

Bertso Eskolen Eguna eta Eskolarteko finala

Domekan gure herriak bertsojaritza-jarduerari hartuko ditu, XI. Gipuzkoako Bertso Eskolen Eguna eta XXXVI. Eskolarteko finala, biak Eibarren izango dira eta. Horrela, egun osoko egitarauaz gozatzeko aukera izango dute ber-



tso-eskoletako haur eta gaztetxoek. Eskolarteko finala goizez jokatu da, Coliseo antzokian 11:30etik aurrera eta aurrez eginiko bost kanporaketetatik sailkatutako ondorengo zortzi bertsolariak abestuko dute: Gontzal Belategi, Beniat Mujika, Andoni Mujika, Aizpea Garmendia, Urko Arregi, Itziar Mendia, Libe Goenaga eta Ane Peñagarikano. Gai-jartzailea, bestalde, Saroi Jauregi izango da.

Finala amaitu eta gero, gazteek Urkizuko parkean elkarrekin bazkaltzeko aukera izango dute, arratsalderako eurentzat prestatutako jolasei ekin aurretik. Ekitaldiaren harira Gipuzkoa osoko 300 bat ume eta begirale elkartzea aurreikusitako antolatzaileek.

Asier Serranok irabazi du Xabier Lete Poesia Saria

Martitzenean jakinarazi zuten, Asier Serranok irabazi du Xabier Lete Poesia Saria, "Linbotarrak" izenburuko lanarengatik. Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean egindako agerraldi publikoan eman zuten ezagutzera sarituaren izena Denis Itxaso Gipuzkoako Kultura diputatuak eta Joxerra Gartzia epaimahaiko kideak. Idazle eibartarrak Jose Ramon Andaren eskultura bat eta 12.000 euro jasoko ditu eta saritutako lana Pamiela argitaletxeak emango du argitara, aste gutxi batzuk barru.

Sarituak berak ekitaldian esan zuenez, "libre" idazten ahalgindu da, idazketarako "filtrorik gabeko kamera" erabilita.

Horrekin batera, linboa gaur egungo munduarekin parekatu zuen: "Ni linbotarra naiz, baina denok gara linbotarrak. Linboa lurra da: gure Europa hau, gure Euskal Herri hau. Bizirik dirauten hildakoak eta, era berean, hildakoa bere baitan daramaten biziak ageri dira liburuan".

Serranok orain dela gutxi Irun Hiria poesia lehiaketa irabazi zuen "Ate osteko itzalak" lanarekin eta, orain berriz, Xabier Lete III. poesia saria eskuratu du. Aurreko edizioetan Karlos Linazasorok eta Luis Gardek jaso zuten saria.



Bertso-bazkaria Legarren

Legarreko jai-batzordeak bertso bazkaria antolatu du apirilaren 30erako. Legarre Gain elkartearen izango da bazkaria eta Jokin Bergara eta Manu Goigana bertsolariak jardungo dute. Gai-jartzailea, berriz, Maddi Alberdi izango da. Bazkarirako txartelak Legarre-Gaineko Bolintxo okindegian eta Legarre beheko frutadendan daude salgai, 20 eurotan helduentzat eta 10 eurotan umeentzat eta joan nahi duenak apirilaren 25a baino lehen erosi beharko du.



Manu Goigana eta Jokin Bergara izango dira hitzekin jolasten.



Trikitixa Eguna Bergaran


Debagoieneko 12. Trikitixa Eguna ospatuko dute zapatuan Bergaran: egitaraua 10:15ean hasiko da, ongietorri eta hamaiketakoarekin (Seminarioko patioan); 11:00etan solasaldia egingo da Xabi eta Kristina Solanorekin, Amaia Orejak gidatuta (Aranzadi ikastolan); horrekin batera haurrentzat jolasak egongo dira (Seminarioko patioan); ondoren kalejirak hasiko dira, herriko kaleetan zehar; 13:00etan Debagoieneko eskolen emanaldiak hasiko dira (herriko plazan); 14:30ean, herri bazkaria; 17:00etatik aurrera trikitixa jaialdia hartuko du herriko plazak eta, ondoren, trikipotea egingo da herriko kaleetan zehar; eta eguna agurtzeko, 23:00etatik aurrera Gozategik jardungo du herriko plazan.



Azkoitia-Azpeitia Maratoi Erdia

Bihar jokatu den Azkoitia-Azpeitia Maratoi Edirako 550 lagunek baino gehiagok eman dute izena. Maratoi erdiaz gain, 7'5 kilometroko herri lasterketa (16:45ean) eta roller lasterketa (16:40ean) ere izango dira egun berean. Maratoi erdia 17:00etan hasiko da. Aurten, lehen aldiz, Diego Garciaen omenez egin ohi zuten isilunearen ordez, aureskua dantzatuko dute Sahatsa Dantza Taldeko dantzari batzuk.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



hildakoak

- **Alberto Artamendi Franco.** 64 urte. 2016-III-31.
- **Sabina Maguregi Mandiola.** 93 urte. 2016-IV-7.
- **Rosi Sanchez Redondo.** 70 urte. 2016-IV-8.
- **M^a Angeles Jauregi Castañeda.** 55 urte. 2016-IV-12.
- **Antonio Rojo Retuerta.** 83 urte. 2016-IV-12.
- **Juan M^a Agirregomezkorta Garitaonandia.** 79 urte. 2016-IV-13.

jaiotakoak

- **Thiago Flores Melgar.** 2016-III-25.
- **Aya Mohammadi.** 2016-IV-5.
- **Niko Ugarte Alfaye.** 2016-IV-5.
- **Marna Benyaich Adarghal.** 2016-IV-7.

farmaziak

- Barixakua 15**
EGUNEZ **Mandiola (S. Agustin, 3)**
- Zapatua 16**
EGUNEZ **Castaño (J. Etxebarria, 7)**
- Domeka 17**
EGUNEZ **Azkué (T. Etxebarria, 4)**
- Astelehena 18**
EGUNEZ **Elorza (J. Gisasola, 18)**
- Martitzena 19**
EGUNEZ **Lekunberri (Isasi, 31)**
- Eguaztena 20**
EGUNEZ **Lafuente (Sostoatarren, 10)**
- Eguena 21**
EGUNEZ **Elorza (J. Gisasola, 18)**
- Barixakua 22**
EGUNEZ **Iraundegi (Calbeton, 19)**

GAUEZ BETI - 2016AN-
Iraundegi (Calbeton, 19)

SUDOKUA

6		7		5	8	9		
								3
				4				8
	3	9	2					7
7								6
8					7	4	1	
1				2				
9								
		6	4	9		7		2

8	4	6	2	5	9	1	7	3
3	5	9	6	1	7	8	4	2
7	1	2	8	3	4	9	6	5
2	6	8	4	9	5	7	3	1
5	7	4	3	8	1	6	2	9
1	9	3	7	2	6	4	5	8
9	2	7	5	6	8	3	1	4
6	3	1	9	4	2	5	8	7
4	8	5	1	7	3	2	9	6

AURREKOAREN EMAITZA

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 15

GAZTELEKUA

16:30. Play. Indianokuan.

HITZALDIA

19:00. "Herentzia eta Testamentuak", Arantxa Intxausti abokatuaren eskutik. Untzagako jubilatutuetxean.

BERTSO SAIOA

20:30. XV. Plazatik Gaztetxera bertsolari gazteen txapelketako lehen kanporaketaren aurretiko afaria.

22:30. Bertso-saioa. Bikoteak: Manex Astigarraga eta Maddi Sarasua; Ane Zuazubiskar eta Maria Izaga; Aissa Intxausti eta Malen Amenabar; eta Aitor Salegi eta Antton Aizpurua. Gaztetxean.

Zapatua 16

"ABIAN" BILERA

09:30. Ezker Abertzalearen prozesuaren 3. batzarra: ildo politikoak eta antolakuntza eredia eztabaidatu eta bozkatzeko. Arrate Kultur Elkartearen.

II. ERREPUBLIKA

10:00. "II. Errepublikaren Eibar" ibilbide historikoa, Jesus Gutierrezekin. Untzagatik abiatuta.

ARMERIAKO IKASLE OHIAK

10:00. Elkarteak Batzar Orokorra. Harrera eta ziurtagiriak banatzea.

12:15. Argazki ofiziala. Armeria Eskolan.

NAGUSIEN AZOKA

10:30/20:00. Pertsona Nagusiendako produktu eta zerbitzuen azoka. Untzagan.

DEPARKEL PINTXOPOTEA

11:30/15.00 eta 19:00/22:00. Debabarrena Parkinson Elkartearen aldeko pintxo-pote berezia. Untzagan.

KALEETAN KANTUZ

12:30. Abesbatzaren emanaldia. Untzagan (Nagusien Azokan).

DANTZA

17:00. "Spaceko Zarama" (Krego Martin Danza) ikuskizuna. 5 euro. Coliseoan.

GAZTELEKUA

17:00. Mahai-jolasak. Indianokuan.

Domeka 17

BERTSO ESKOLEN EGUNA

10:00. Gipuzkoako Bertso Eskolen Eguna. Goizean XXXVI. Eskolarteko Finala Coliseoan. Bazkaria Urkizuko parkean.

CANICROSS-A

10:00. I. Canicross-a "Marcan Huella"ren eskutik. Izen ematea: 5 euro. Aixolako urtegia.

NAGUSIEN AZOKA

10:30/14:30. Pertsona Nagusiendako produktu eta zerbitzuen azoka. Untzagan.

KALEJIRA

11:00. Usartza Txistulari Banda.

II. ERREPUBLIKA

12:00. Gazte Komunistak-eren eskutik Ermutik abiatuko den martxa amaituta, Ezker Anitzaren ekitaldia, Cayo Lara koordinatzaile nagusiarekin. Untzagan.

GAZTELEKUA

17:00. Filme-emanaldia. Indianokuan.

Martitzena 19

NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

09.30. Irteera, Donostiara.
10:30. Bisita San Telmo Museora. Bazkaria Aginaga sagardotegian eta dantzaldia (20 euro). Autobusaren irteera ordua Ego Gaietik (Behoko Tokian, 09:35ean).

IKASTEN

10:00. "Landareak" hitzaldia. Armeria Eskolan.

DENDARIAK BERBETAN

15:00. "Euskera, tresna eta aukera merkataritzan" hitzaldia. ...eta kitto!n.

IKASTEN

16:00. Puntu-tailerra.
17:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

HITZALDIA

19:00. "Eibar Errepublikatik haratago!!!", Josu Ibartutxi eta Jesus Gutierrezen eskutik. ...eta kitto! Euskara Elkartearen.

HITZALDIA

19:00. "Energia eta ekonomia alternatiboak", Alternatibaren eskutik. Berehalako itzulpena egingo da. Portalean.

SUKALDARITZA TAILERRA

19:00. "Cocina en la Montaña" (Paco Oliva). Klub Deportiboan.

IRAKURKETA KLUBA

19:00. Gaztelarazkoa: "Sin noticias de Gurb" (Eduardo Mendoza). Portalean

UMEENDAKO TAILERRA

19:00. Eibar animatzeko ponpoia egiteko tailerra. Izen-ematea: El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

Eguaztena 20

BAKARRIZKETA

19:00. "Txikiren umorezko bakarrizketa: Mil a zien". ...eta kitto!-n (Urkizu, 11).

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entseua. San Andres elizan.

IKUSKIZUN-DASTAKETA

19:30. "Ketuekin Jolasten" ikuskizun-dastaketa. Topalekuan.

Eguena 21

IKASTEN

10:00. "Iruñako erresuma" hitzaldia. Armeria Eskolan.

NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

11:00. J. Luis Mugerzaren Oroimenez Ibilaldia, Untzagatik abiatuta. Piskolabisa Ipurua jubilatutuetxean.

AUZO-BILERA

18:00. EH Bildurena: San Kristobal, Sostoatarren eta Ubitxa.

LIBURU AURKEZPENA

19:00. "Anboto, Imagen de un Mundo Flotante" (Imanol Marroden). Portalean.

BILERA

19:00. Kaleratzeak Stop Debabarrenaren bilera irekia. Portalean (3. solairuan).

KALEETAN KANTUZ

19:30. Abesbatzaren entseua. San Andres elizan.

ANTZERKIA

20:30. "El Florido Pensil-Neskak" (Tanttaka Teatroa). 10 euro. Coliseoan.

Erakusketak

Apirilaren 22ra arte:

Jose Luis Irigoien "Ebakiñak" (Topalekuan)

Apirilaren 30era arte:

"Andrak eta errepublika" (Juan San Martin liburutegian)

"ADECAP Elkarteak 25 urte" (Armagintzaren Museoan)

Eibarko Artisten Elkartearen 50. urteurrena (Portalean)

Arantza Alvarez margoak (Untzagako Jubilatuen Etxea)

2016ko abendura arte:

Jose Luis Apraizen arma-bilduma (Armagintzaren Museoan)


Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, LIHER, astelehenian bi zifrako zenbakixa estreñiatu zenduan-eta. 10 bat zuretzat. Familixaren partez.



Zorionak, AITOR, atzo zazpi urte bete zenduaz-eta. Muxu haundixa etxekuen eta, batez be, aitxitxa eta amamaren partez.



Zorionak, TELMO, hillaren 12xan urtetxua bete zenduan-eta. Muxu haundi bat famelixaren eta, batez be, Markelen partez.




Zorionak, LIBE Makibar, atzo hiru urte egin zenduaz-eta. Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, Danelen partez.



Zorionak, ANDONE Agote Gorostizaga, atzo 9 urte egin zenduaz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, NAIA Mondragon Urizar, atzo bost urte bete zenduazelako. Muxu haundi bat famelixaren eta Mikelen partez.



Zorionak, MARKEL, astelehenian zazpi urte bete zenduaz-eta. Laztan haundi bat aitaxo, amatxo eta Aneren partez.



Zorionak, EIDER!!, atzo zortzi urte egin zenduaz-eta!! Patxito haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, OIHENART, txapeldun, astelehenian bost urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat aitaxo, amatxo eta Aioraren partez.



Zorionak, GARAZI, astelehenian 14 urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, LIZAR, txapelduna!, eguenian 3 urte bete zenduaz-eta. Muxu haundi bat etxeko danon partez.



Zorionak, LUIS eta PAKITA, zuen 60. urteurrenien. Primeran ospatuko dogu!! Muxu haundi bat etxekuen aldetik.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

16an: 19:45, 22:30

17an: 20:00

18an: 20:30

"La juventud"

Zuzendaria: Paolo Sorrentino



(2 ARETOAN)

16an: 17:00, 19:45, 22:30

17an: 17:00, 20:00

18an: 20:30

"Mustang"

Zuzendaria: Deniz Gamze



(ANTZOKIAN)

16an: 17:00 (1), 19:45, 22:30

17an: 17:00 (1), 20:00

18an: 20:30

"El secreto de una obsesión"

Zuzendaria: Billy Ray



(ANTZOKIAN)

17an: 17:00

"Oker"

Zuzendaria: Stuart McDonald



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Buhardilla salgai. Berriztuta. Tel. 634-453097.

1.2. Errentan

– Pisu (edo logela) hartuko nuke alokairuan Eibarren. Lagun bakarrarentzako. Tel. 622-315458. Abraham.
– Udarako etxebizitza alokagai Deban. 2 logela. Erdigunean kokatuta. Tel. 607-180791.
– Pisu hartuko nuke alokairuan Eibarren. 450-500 euro inguru ordaintzeko prest. Tel. 631-343232.
– Pisu txikia behar da Eibarren. Ahal denik eta arinen. Tel. 634-458275.

2. Motorra

2.1. Salgai

– 2014ko azaroko Ford Kuga salgai. Diesel, 140cv, 2.TDCi Titanium. 4x2. 22.000 km. Berriberria. Tel. 637-340441.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Taberna traspasatzen da Eibarren. Prezio onean. Tel. 628-235319.

3.2. Errentan

– Garaje itxia alokagai Eibar erdialdean (Txomo eta Abontza artean). Tel. 617-688311.
– Lokala alokagai Ubitxa inguruan, kalerako irteera zuzenarekin. Bulego, biltegi edo tailer txikiarendako aproposa. 70m²/150m². Tel. 617-688311.
– Martxan dagoen ileapaindegia alokagai Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Magisteritza ikasten diharduen neska eibartarra eskaintzen da arratsaldez umeak zaintzeko. Tel. 606-187556.
– Emakume arduratsua eskaintzen da orduka garbiketa lanak egiteko. Tel. 688-872312.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 680-808125.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-607193.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 632-337083.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin eta nagusiak zaintzeko. Tel. 631-434137.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-139915.
– Emakumea eskaintzen da etxea garbitu eta nagusiak zaintzeko. Tel. 608-376389.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 622-153750.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 655-094780.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Berehala hasteko moduan. Tel. 628-738472.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Asteburuak barne. Tel. 642-267113.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 663-639241.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxea garbitzeko. Tel. 631-988471.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 616-833195.
– Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 640-209948. – Gizona eskaintzen da gauzez eta asteburuetan nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 650-513412.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 658-458271.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-490595.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 604-297837.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu, sukalde-laguntzaile jardun eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-562380.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 642-694596.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 631-506763.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-967238.
– Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako egin eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-454417.
– Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako egin eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-705406.
– Neska eskaintzen da astegunetan goizez etxeko garbiketarako egin eta gauzez ospitalean zaintzeko. Esperientzia. Tel. 652-587259.
– Neska arduratsua eskaintzen da umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 652-587259.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 679-910991.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 637-071779.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Edozein ordutegitan. Tel. 661-001246.
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta dendari moduan. Orduka. Tel. 639-423493.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin eta nagusiak zaindu (baita ospitalean ere). Tel. 632-925362.
– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 690-064225.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 678-814941.
– Mutila eskaintzen da baserrietan lan egiteko. Tel. 622-702398.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaindu. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-732847.

– Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaindu. Tel. 662-012834.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-956574.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta beste edozein lan egiteko. Tel. 631-466742.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-562380.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-103811.
– Neska euskalduna eskaintzen da etxeko garbiketarako egin eta nagusiak zaindu. Tel. 943-744033 eta 637-102725.

4.2. Langile bila

– Sukaldari orientala behar da autoarekin. Tel. 670-672515.
– Kamarera/o behar da lanaldi osorako. Tel. 615-750942. Oskar.
– Kamarera/o behar da asteburuetarako Eibarren. Curriculumak: tre@euskalnet.net
– Pertsona bat behar da asteburuetan Amañako dastalekuan lan egiteko. Bidali curriculum-a: igorvazquez@hotmail.com
– Kamarera/o behar da Eibarko jatetxe bateko barra eta jantokian. Ezinbestekoa esperientzia izatea. Tel. 653-732537.
– Pertsona behar da garbiketa lanak egiteko. Beharrezkoak autoa eta gidatzeko baimena. Autonomo egin beharko da. Tel. 685-701034.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– DBH, Batxilergoa eta partikularren azterketak prestatzeko klase intentsiboak ematen dituzte. Tel. 685-939709.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Juan Serranoren hainbat margolan saltzen dituzte. Tel. 656-710155 eta 943-207703.
– 0'90eko sukalde salgai, gas-bonbonak eramatekoarekin. Baita 0'90eko ohe artikulatua ere. Berriak. Tel. 617-688311.
– Bigarren eskuko bizikleta merkea erosiko nuke. Baita whatsapp bitartez ere. Tel. 645-722611.

6.4. Bestelakoak

– Nire kabuz jazz-gitarra ikasten nabil. Laguna behar ditut (gitarra edo beste instrumenturen bat) elkarrekin ikasteko. Tel. 649-088883.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak



Serie GO! i20

Serie GO! i30

Hyundairen GO! Serie Berezia Berria

Aurkitu Hyundairen GO! Serie Berezia berria eta eraman **5.000€-ko gutxieneko deskontu bermatuarekin**.
Eta gozatu zure Hyundaiaz topera!



OARSO CAR HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO
ELGOIBAR Olaso Polig., 17 **943 74 14 80**



Finantzatutako autoentzat. i20 GO! Serie Berezia: CO₂ Emisioak (gr/km): 99-112. Kontsumo mistoa (l/100 km): 4,3-4,8.
Pive Plan 8a barne. i30 5 ate GO!: CO₂ Emisioak (gr/km): 99-135. Kontsumo mistoa (l/100 km): 3,8-5,8.

PVP i20 GO! 1.2MPI (85CV) GO (12.115€). PVP i30 5 ate GO! 1.4 MPI (100CV) 8D GO! (14.430€). Penintsulan eta Balearetan gomendatutako PVP-a, BEZ, garraioa, Matrikulazio-zerga, promozio-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena, mantenimendu-eskaintza eta Gobernuaren PIVE Plana (Gobernuaren Plan horretako baldintzen betearazteari lotuta) barne. Eskaintza aplikagarria gutxienez 60 hilabetetan eta 10.000€ko (i20 GO! eta i30 GO!-en kasuan) gutxieneko zenbatekoan Santander Consumer EFC S.A.-ren bidez finantzatuko duten bezero partikularrentzat. Finantza-entitatearen azterketa eta onarpenari lotutako finantziak. 2016/05/31ra arte balioko du eskaintza honek. Erakutsitako modeloak: i20 GO PLUS! eta i30 GO PLUS! Mantenimendua ibilgailuaren finantziarioari lotuta. Begiratu eskaintza eta mantenimenduen baldintza guztiak Hyundai kontzesionarioetako sare ofizialean edo hyundai.es helbidean.

Eibarko dendari eta establezimendu
komertzial guztientzat

hitzaldia:



“EUSKERA, TRESNA ETA AUKERA MERKATARITZAN”

Gehiago eta hobeto saltzeko estrategiak

Estitxu Garai (publizista eta EHUko ikerlaria)

Antolatzailea:



Euskara Elkarte

Babeslea:



Laguntzaileak:



Noiz: Apirilak 19, martitzena
Ordua: 15:00etan
Non: ...eta kitto!n (Urkizu 11)

Asko dira gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun


innovadental
clínicas

www.innovadentalclnicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN



Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

mail: bistaeder@innovadentalclnicas.com

www.innovadentalclnicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN



José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**

mail: innovaazpeitia@innovadentalclnicas.com

www.innovadentalclnicas.com